

ADIERAZPENA, GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALAREN 60. URTEURRENARI BURUZKOA

Espainiako Ararteko Enrique Múgicak; Andaluziako Ararteko José Chamizok; Aragoiko Justizia Fernando García; Asturiasko Prokuradore Orokor M^a Antonia Fernándezek; Kanarietako Komunaren Diputatu Manuel Alcaidek; Gaztela-Mantxako Ararteko José Manuel Martínezek; Gaztela-Leongo Komunaren Prokuradore Javier Amoedok; Kataluniako Síndic de Greuges Rafael Ribók; Valentziako Síndic de Greuges Carlos Morenillak; Galiziako Valedor do Pobo Benigno Lópezek; Errioxako Ararteko María Bueyo Díezek; Nafarroako Ararteko Francisco Javier Enérizek; Euskadiko Ararteko Íñigo Lamarcak eta Murtziako Ararteko José Pablo Ruiz Abellánek honako baterako deklarazioa egiten dute Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948an eginiko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala dela eta.

Batetik, giza eskubideekiko errespetua eta, bestetik, eskubide horiek bermatzeko eta zaintzeko erakundeak eta tresnak izatea demokrazia modernoan funtsezko zutabeak dira. Horri dagokionez, pertsonen eskubideak bermatzeko lan egiten dugun Espainiako erakundeok –zentralak nahiz autonomikoak–, funtzio hori baitauekugu administrazioen jarduerak eta politika publikoak ikuskatzearen bitartez, antolamendu juridikoan aitorturiko eskubideak behar bezala errespetatu daitezzen eta daukaten ahalmen guztiarekin beren osotasunera iritsi daitezzen, gure gain hartzen dugu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren alde trinko lan egiten jarraitzeko konpromisoa, herritarren gizarte-ongizatean ahal den mailarik altuena lortzeko.

Baterako adierazpen honekin, ezagutzera eman nahi ditugu gure lanarekin loturiko zenbait gai, gure ustez nabarmendu beharrekoak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena ospatzeak aukera eman dezan aitorturiko eskubideei eduki erreala ematen dioten politika publikoak bultzatzeko eta estimulatzeko. Duintasuna, askatasuna, justizia eta pertsonen berdintasuna dira, beren zabaltasun guztian, pertsonen eskubideak sustengatzen dituzten oinarrizko balioak eta, horrenbestez, haien bermea; hori dela eta, eskubide horiek babestera bideraturiko tresna eta baliabide instituzionalak politika publiko sektorialen eraginkortasuna ere bilatu beharko dute.

Indarkeria terrorista –ETArena, Al Qaedaarena edo beste edozeinena izan– fanatismoan, gorrotoan eta totalitarismoan oinarritzen da, eta, zalantzarik gabe, herritarren giza eskubideetako minbizia da. Deuseztatu beharreko eta zilegitasuna kendu beharreko gaitz bat da, etengabeko ekintza koordinatuarekin eta atsedenek gabekoarekin borrokatu behar dena. Norabide horretan, terrorismoaren biktimekiko

egia, justizia eta konponbidea modu egokian eta eraginkorrean islatu behar da legeetan, politika publikoetan eta aitorten sozialean.

Egungo abagune ekonomikoan, agertzerak eman nahi dugu lan-baldintzen (horren barne dela lan-istripuen kopuruak etengabe gora egitea) eta existentzia-baldintzen endekatze progresiboarengatik daukagun kezka sakona, endekapen horrek herritar eta familia askorengan eragina baitu, eta, halaber, langabeziaren igoerarengatik kezka sakona, egoera horrek, segur aski, zauggarritasun sozio-ekonomikoa eta gizarte bazterkeria areagotuko baititu, batez ere integrazio prozesuan zeuden etorkinen artean, eta are modu dramatikoagoan ere, gure lurraldera modu irregularrean iristen jarraitzen dutenen artean. Horrenbestez, prestazio sozialak perfektionatu behar dira, bizimodu duina, harrera eta gizarteratzea berma ditzaten; hartara, gainera, gutxitu egingen dira bereziki kalean etxerik gabe dauden pertsonengatik gero eta ageriago dauden pobrezia- eta bazterkeria-poltsak, eta desberdintasun horiek sortzen dituzten arrazoen aurka borrokatu ahalko da.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista jasanezinezko errealitate bat da, eraginkortasun handiagoz borrokatu beharrekoa. Horretarako, zabaltasun eta sakontasun handiagoz garatu behar dira egungo legeetan alderdi sozialetan eta prebentiboetan generoko indarkeriaren aurka jasotako alderdiak, eta erabilgarri daukagun tresnak eta bitartekoak egoki koordinatuko dira.

Halaber, haurrek eta nerabeek, bereziki ahula den taldea osatzen baitute, botere publikoen laguntza jarraitua eta lehentasunezkoa eskatzen dute. Kezkagarri zaizkigu, arlo horretan, babes-baliabideak behar dituzten adingabeen kopuruaren handitzea; bidaiderik ez duten adingabe atzerritarrentzako laguntza eskasa; eskola giroan, familia barrenekoan eta aisialdiko eremuetan eraso-jokabideen handitzea, eta, azkenik, nahaste psikikoekin eta alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoarekin loturiko fenomenoaren areagotzea.

Adineko pertsonak dauzkaten premien hazkunde handiari ez zaio erantzuten ari haiei arreta emateko baliabideak handituz. Pertsonen autonomia sustatzeari buruzko legea aurrerapen bat izan bada ere menpekotasun motaren bat dauzkaten pertsonen (bereziki adinekoei) zuzendutako politiketan, haren garapenean eta aplikazioan oraindik ere gabezia handiak atzematen dira, bereziki erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa zehaztea bezalako oinarritzko alderdietan. Horrek, izan ere, eskatzen du administrazio eskudunek erantzukizun publikoz jokatzeko.

Erakutsi beharra daukagu, halaber, kezkaturik gaudela buruko gaixotasunen eragin gero eta handiagoarengatik eta gaixo horiei laguntza emateko politikak eta programak

eskasak izateagatik. Pertsonen autonomia sustatzeari buruzko aipatu legeak ez die behar bezalako erantzuna eman halako gaixotasunak pairatzen dituzten pertsoneri eta haiek zaintzeaz arduratzen diren senideei. Laguntza sozio-sanitarioaren aldeko apustu argiak –arlotzaren eta sanitarioaren artean baliabide koordinatuak jarri– gabeziak arindu eta lagungarri gertatuko litzateke sektore horretan –eta, oro har, ezgaitasunen bat duten pertsonen sektorean– dauden arriskuei aurrea hartzeko.

Era guztietako bazterkeriaren aurkako borrokak bultzada eta tresna berriak eskatzen ditu, planteamendu integral, zeharkako eta proaktibo baten barrenean. Planteamendu horrek –gauza izateaz gainera sexua, arraza, ideologia, erlijioa, ezgaitasuna, sexu-orientazioa edo bestelako inguruabarrak direla eta sortzen diren bazterkeria-kasuen aurka eraginkortasunez borrokatzeko– helburu izanen du desagerraraztea sexismoa, arrazakeria, homofobia eta, oro har, pertsonen eta haien berezko duintasunaren errespetua urratzea elikatzen duten mespretxua eta intolerantzia bezalako kontrabaliok. Horri dagokionez, bereziki kezagarri zaizkigu atzerritarren edo etorkinen aurkako jarrera xenofoboak eta ijitoei eraso egiteko eta haiek baztertzeko jokabideak.

Botere publikoek ahal den intentsitate handienarekin lan egin behar dute herritarren segurtasuna eta pertsonen nahiz haien ondasunen askatasunaren eta integritatearen babesa bermatzeko. Hori dela eta, ahal den guztian indartu behar dira delinkuentziaren prebentzioa eta haren aurkako borroka, eta behar diren baliabideak eman behar zaizkie goraipatzeko moduko lan horretan ari diren polizia indarrei.

Magistratuek, epaileek, fiskalek eta Justizia Administrazioa osatzen duten langile guztiek, beren aldetik, funtsezko funtzio bat betetzen dute Zuzenbideko estatu demokratiko batean. Izan ere, estatu horrek bere funtsa galduko luke eginkizun hori bete-betean gauzatuko ez balitz, babes judizial eraginkorra bilatzearen ondorioetarako, bereziki arintasun prozesalari dagokionean. Hori dela eta, Botere Judizialak eta Justizia Administrazioak behar diren baliabide pertsonalak eta materialak eduki behar dituzte beren egitekoa behar den bezala betetzeko. Une honetan, aldiz, errealitate hori ez dago inolaz ere kontrastaturik.

Espetxeen eta arau-haustean egiten dituzten adingabeak hartzeko zentroek zorrotasun erabatekoaz bete behar dituzte Konstituzioaren printzipioak eta eskubideak. Ez da inoiz ere geroratu behar atxiloturik dauden pertsonen birgizarteratzea eta berrezkuntza. Haietatik asko, izan ere, gizarte-bazterkeria larriko egoeretan dute jatorria. Horri dagokionez, espetxeetako funtzionarioek egiten duten lana garrantzi bizikoa da; hori dela eta, behar diren baliabide pertsonal eta prestakuntzazkoekin eta baliabide materialekin indartu beharko da.

Demokrazia oso batek bereziki zorrotza izan behar du askatasuna kentzearen arloetan, eta arreta bereziaz bermatu behar ditu atxilotutako edo espetxeratutako pertsonen eskubideak, bai eta funtzionario polizialen eta espetxeetako funtzionarioen eskubideak ere. Torturaren eta bestelako tratu edo zigor anker, bihotz gabe edo laidogarrien aurkako Konbentzioko Protokolo Fakultatiboak –Espainiak 2005eko apirilaren 13an izenpetu zuen– jasotzen dituen tresna nazionalaren eta autonomietako eskumenen arabera lurralde-tresna deszentralizatuen izendapena ahal bezain laster gauzatu behar da, eta arartekoek funtsezko zeregin bat izanen dugu tresna horietan.

Administrazio egoki baterako eskubideak administrazio publikoen lana eta herritarrekiko harremanak orientatu behar ditu; zehazki, informaziorako eta parte-hartzerako eskubideei dagokien neurrian. Bestalde, komeni da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideetarako babes- eta berme-elementu berriak ezartzea, bereziki eguneroko bizimodurako ezinbestekoak diren zerbitzuei dagokienez; esate baterako, energiaren eta telekomunikazioen erabilera, inbertsioak eta aurrezkiak.

Ilido beretik, bizikidetasunean oinarrituriko sistema demokratiko batek garapen ekonomiko eta hirigintzazko garapen jasagarriak exijitzen ditu; hain zuzen ere, ingurumena eta ondare historiko eta artistikoa errespetatuko dituen eta haiek etorriko diren belaunaldietarako hipotekatuko edo negatiboki baldintzatuko ez dituen. Halaber, bilatu behar du herritar guztiek Interneteko baliabideak eskuratu ahal izatea, eta eten digitala deitutakoa sarea erabiltzeko aukeren ondorioz handi ez dadin saihestea. Halaber, herritarren intimitaterako eskubidea eta datu pertsonalen babeserako eskubidea bermatu behar ditu. Bitartekoak jarri beharko dira, halaber, ingurumeneko kutsadura eta kutsadura akustikoa gutxitzeko. Azkenik, animalien presentzia eta bizimodua behar bezala erregulatu beharko dira.

Aipatu ditugun eskubideak ahal den guztian babestea, besteak beste, estatu sozialaren oinarri klasikoak osatzen dituzten eskubideen defentsarekin osatu beharko da. Osasunerako eskubidea, zeinean gora doazen eskarien eta eskura dauden baliabideen arteko desorekaren erasoak pairatzen ari baitira, behar bezala bermatu behar da espainiar guztientzat, berdintasun-terminoetan eta eska daitekeen kalitate handienarekin.

Hezkuntzarako eskubideak, bestalde, guztientzako hezkuntza egokia bermatu beharko du, bai eta aukeren berdintasuna eta hezkuntza premia berezietarako laguntza ere. Eskolak izan behar du gure haurrek elkarrekin bizitzen ikasteko eta giza eskubideak errespetatzeko edukiko duten espazioa, eta behar diren balioak landu behar ditu biharko gizarteak aniztasuna barnera dezan eta solidarioagoa eta berdinekoagoa izan dadin.

Gizarte prestazioetan –kotizazioaren ondoriozkoak nahiz kotizazio gabekoak izan– (horien barne dela etxebizitza duina izateko eskubidea), oinarrian dauden printzipioak bete behar dira, eta haien exijentzia eta iraunkortasuna bermatu behar dira.

Eskubideak defendatzeko eta bermatzeko erakundeen titular guztiok, adierazpen honi amaiera emateko, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren hasierako baieztapen solemnea gogoratu nahi dugu: “Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute”. Gustatuko litzaiguke horixe izatea botere publikoen eta pertsona guztien jardueren eta portaeren gidalerroa.

Bartzelona, 2008ko abenduaren 9^a

.

**ADIERAZPENA, GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALAREN 60.
URTEURRENARI BURUZKOA**



El Defensor
del Pueblo

dPA Defensor
del Pueblo
Andaluz



Procuradora General
del Principado de Asturias



**DEFENSOR DEL
PUEBLO DE LA
REGIÓN DE MURCIA**